Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Inguruneko Departamentua

# Covid–19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko programa

## 2020KO DEIALDIA

## ZURITZEKO PROZEDURA

***Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete zure proiektuaren justifikazio zuzena egiteko.***

**Zuriketa bidali aurretik, zalantzarik izanez gero edo jusitifikazioari buruzko argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:**
sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus

| |
|---|
| **LIKIDAZIO ORDAINKETA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSEN LABURPENA** |

http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa

| |
|---|
| 1.– ZURE GAKOEKIN SARTU APLIKATIBOAN:<br><br>http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa |
| 2.– “NIRE PROIEKTUAK” AUKERATU.<br><br>**JARDUERA:** COVID–19 UDALAK.<br>**EGOERA:** ONARTUTA. |
| 3.– **KLIKATU:** “AUKERAK” eta aukeratu “PROIEKTUA IKUSI”. |
| 4. – **AUKERATU:** “AMAIERAKO ZIURTAGIRIA”. |
| 5. – ONDORENGO **ARGIBIDEAK JARRAITU**. |

## Edukia

1. APLIKATIBO INFORMATIKOA ETA ZURIKETA EKONOMIKOA

1.1. Proiektuaren amaiera txostena.

1.2. Proiektuaren kostuak eta finantzaketa plana.

1.3. Betebeharreko dokumentuak.

1.4. Gauzatutako kostuaren zehaztapena.

1.5. Zerga eta gizarte zegurantzako betebeharrak betetzea.

2. PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

2.1. Proiektuaren publizitatea.

3. PROIEKTUAREN AMAIERAREN BIDALI

## 1. APLIKATIBO INFORMATIKOA ETA ZURIKETA EKONOMIKOA:

Hurrengo atalak osatu eta/edo erantsi:

### *1.1. PROIEKTUAREN AMAIERA TXOSTENA*

AMAIERAKO ZIURTAGIRIA bete.



**Atal bakoitzean** adierazten da, **gidoi gisa**, eskatutako edukiari erantzun bat emateko sartu beharreko gutxieneko informazioa.

## Betetako helburuak *(ZERTARAKO)*

- *Lortu diren helburuak.*
- *Enpresa onuradunak.*
- *Lortutako hobekuntzak/emaitzak.*
- *Aplikazio eremua.*

## Garatutako proiektua *(ZER) (NORK)*

- *Egindako ekintzaren deskribapena.*
- *Emandako dirulaguntza bideratzeko tresna: xedea, finantzaketa, enpresa onuradunak, diruz lagun daitezkeen gastuen tipologia, laguntzen zenbatekoa, enpresa onuradunen betekizunak, eskabideak aurkezteko eta gauzatzeko epea...*
- *Hala badagokio, ekimena kudeatzen udalarekin lankidetzan aritu diren kanpoko erakundeak.*

## Garatutako zereginak eta azpizereginak

- *Gauzatutako zereginen eta azpizereginen deskribapena.*

## Egon diren zailtasunak

- *Diagnostikoa.*
- *Diseinua.*
- *Plangintza eta antolaketa.*
- *Egikaritza.*
- *Koordinazioa.*
- *Bestelakoak.*

## Proiektuaren balorapen orokorra

- *Lortutako emaitzak.*
- *Helburuen betetzea.*
- *Plangintza-antolaketa.*
- *Garatzea-egitea.*
- *Jarraipena.*
- *Ebaluazioa eta neurketa.*

## Ondorio nagusiak

- *Hobetze proposamenak.*
- *Etorkizuneko urratsak.*



## *1.2. PROIEKTUAREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA PLANA* Kostuak

Gauzatutako kostuak eta Finantzaketa Plana (**kostuaren eta finantzaketa planaren guztizkoak bat etorri behar dute** eta **kostuak 2. eta 6. eranskinetan** jarritako zenbatekoen **berdinak** izan behar dute).

## *1.3. BETEBEHARREKO DOKUMENTUAK* Amaierako txostenaren dokumentuak

! Eranskin guztiak bete behar dira, bere atal guztietan, data eta sinadura jarrita eta adierazitako informazioa aplikatiboan jarritakoarekin bat etorriko da.

☐ **1. ERANSKINA – PROIEKTUAREN AMAIERAREN ADIERAZPENA.**

☐ **2. ERANSKINA – KOSTUEN ADIERAZPENA.**

☐ **3. ERANSKINA – BESTELAKO LAGUNTZEN ADIERAZPENA.**

☐ **4. ERANSKINA – ARDURAPEKO ADIERAZPENA.**

☐ **5. ERANSKINA – ENTITATE/PERTSONA PARTE-HARTZAILEEN DATUAK.**

☐ **6. ERANSKINA – GAUZATUTAKO KOSTUAREN ZEHAZTAPENA**

☐ **7. ERANSKINA – EMANDAKO DIRULAGUNTZA BIDERATZEKO TRESNAREN KOPIA.**

☐ **8. ERANSKINA – LAGUNTZAK EMATEKO EDO EZEZTEKO BEHIN BETIKO EBAZPENAREN KOPIA.**

## *1.4 KOSTUEN ZURIKETA*

**6. ERANSKINA – GAUZATUTAKO KOSTUAREN ZEHAZTAPENA.**

Eranskina **Excel formatuan** erantsiko da, orri eta **<u>atal guztiak beteta dituztelarik</u>.**

- Kostuen laburpena.
- Lagundutako proiektuen laguntzen ebazpena.
- Lagundutako proiektuen gastuaren justifikazioa.

☐ **<u>FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK</u>**

1.- Udalak enpresa onuradunei egindako **ordainketen frogagiriak** eskaneatu eta erantsiko dira.

2.- Enpresa onuradunen **fakturen egiaztagiriak eta egindako ordainketak** eskaneatu eta erantsiko dira.

3.- **Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf** dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da **6. eranskinean jarritako hurrenkera jarraituz.**

☐ **15.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

**15.000 € edo hortik gorakoak (BEZa kanpo) gastuak** badaude, ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, eskatutako **3 eskaintzen artean** egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa erantsi behar du. Salbuespena: laguntza horren

ezaugarri bereziak direla–eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez bada.

- ☐ **60.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

  Halaber, hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu, eta zenbateko hori 60.000 eurokoa baino handiagoa bada, sinatutako kontratuaren kopia erantsi beharko da.

### *1.5. ZERGA ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEHARRAK BETETZEA*

**Departamentuari baimena eman ez bazitzaion** udalaren zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egiaztatzeko, **zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak erantsi beharko dira.**

## 2. PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia (irudi instituzionala, leloak…. sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, komunikazio hedabideetan, etab.) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak proiektuari emandakoa.

## 3. PROIEKTUAREN AMAIERAREN JUSTIFIKAZIOA BIDALI

Amaiera Ziurtagiria bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

**Proiektuaren AMAIERA ZIURTAGIRIAren jakinarazpena, AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI aukera hautatuz egiten da.**




Proiektuaren **Fasea, Amaiera Ziurtagiria BIDALITA**ra aldatuko da.

